



LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

LESAKAKO ALKATEAREN EBAZPENA
RESOLUCIÓN DEL ALCALDE DE LESAKA

2018ko ekainaren 18an, Lesakako alkate jaunak honako hau ebatzi du, bertzeak bertze:

Con fecha 18 de junio de 2018, el señor alcalde de Lesaka ha adoptado la siguiente resolución:

“(270/2018) BERDEGUNEEN MANTENIMENDUA – KONTRATUAREN ESLEIPENA (Erref.: Udalobrt/2018/7)

“(270/2018) MANTENIMIENTO DE ZONAS VERDES – ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO (Ref.: Udalobrt/2018/7)

Alkatezrak, maiatzaren 4an onartu zuen publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratua esleitzeko administrazio Baldintza Plegua. Baldintza teknikoen plegua, maiatzaren 3an onartu zuen.

El pliego de condiciones administrativas para la adjudicación del contrato mediante procedimiento negociado sin publicidad, fue aprobado por la Alcaldía con fecha 4 de mayo. El 3 de mayo aprobó el pliego de condiciones técnicas.

Gonbidapena hiru enpresei bidali zitzaien eta proposamen bakarra izan zen epe barruan aurkeztu zena. Kontratazio Mahaiak, ekainaren 15ean egindako bileran, epez kanpo aurkeztutako beste bat ez onartzen erabaki zuen.

Enviadas invitaciones a tres empresas, durante el periodo establecido fue presentada una sola proposición. La Mesa de Contratación, en reunión celebrada el día 15 de junio, acordó rechazar otra, presentada fuera de plazo.

Egindako txostenaren arabera, puntuazio tekniko hauek onartu ziren:

Conforme al informe emitido, fueron aprobadas las siguientes puntuaciones técnicas:

Zkia. / Nº	Lizitzailea / Licitador	Puntuak / puntos
1	John Telletxea Mayo	16 (8+8)

Ekainaren 15ean eta publikoaren aurrean, C kartazala (proposamen ekonomikoarena) ireki zen, emaitza honekin (balorazioa eurotan adierazten da, BEZarik gabe):

El día 15 de junio y en acto público, se abrió el sobre C (propuesta económica) que arrojó el siguiente resultado (la valoración se indica en euros y sin el IVA):

Zka. / Nº	Lizitzailea / Licitador	€
1	John Telletxea Mayo	45.000,00

Guzti hori ikusita, Kontratazio Mahaiak, aho batez, erabaki zuen: kontratuaren behin behineko esleipena John Telletxea Mayori ematea bere eskaintza hoberena delako.

A la vista de ello, la Mesa de Contratación acordó por unanimidad adjudicar provisionalmente el contrato a John Telletxea Mayo, por ser su oferta la más ventajosa.

Hau dena ikusirik, ebatzi dut:

Teniendo en cuenta todo ello, resuelvo:

1.) Kontratuaren behin betiko esleitzeko John Telletxea Mayori (73456524K NANA duena), 45.000 €ko kantitatean. Honi, Balore Erantsiaren gaineko Zergaren %21a jarriko zaio (beraz, 54.450,00 € BEZ barne dira).

1º Adjudicar definitivamente el contrato a John Telletxea Mayo (con D.N.I. 73456524K) en la cantidad de 45.000 €. A ella se le aplicará el 21% del Impuesto sobre el Valor Añadido (son, por lo tanto, 54.450,00 € IVA incluido).

2.) Esleipenaren eraginkortasuna hamar egun naturalez suspenditurik geldituko da, 2/2018 Foru Legearen 101.2 artikuluan

2º Conforme a lo dispuesto por el artículo 101.2 de la Ley Foral 2/2018, la eficacia de la adjudicación quedará suspendida

ezarritakoaren arabera.

3.) Esleitu zaionari azaldu, kontratua sinatzeko behar diren agiriak ekarri beharko dituela.

4.) Lizitzaileari honen jakinarazpena egitea eta Nafarroako Kontratazio Atarian eta Udalaren web orrian argitaratua izan dadila.”

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:

1) Berraztertzeko errekurtsua, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. art.).

2) Administrazioarekiko auzi errekurtsua:

a) Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.

b) Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa).

3) Gora jotzeko helegitea, Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailearen 2koa).

durante el plazo de diez días naturales.

3º) Comunicar al adjudicatario que deberá aportar la documentación precisa para la firma del contrato.

4º) Que se notifique la presente adjudicación al licitador y que sea publicada en el Portal de Contratación de Navarra y en la página web del Ayuntamiento.”

Lo que notifico para su conocimiento y efectos, advirtiéndole que contra dicha Resolución podrá interponer alguno de los siguientes recursos:

1) Recurso de reposición, ante el mismo órgano autor del acto, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la notificación de esta resolución (Art. 124.1 de la Ley 39/2015).

2) Recurso contencioso-administrativo ante:

a) La Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra.


b) El Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la notificación (Ley 29/1998, de 13 de julio).

3) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, dentro del mes siguiente a la fecha de notificación de esta resolución (Ley Foral 6/1990, de 2 de julio).

Lesakan, 2018ko ekainaren 19an

Lesaka, a 19 de junio de 2018

Alkatea / El Alcalde,



Jose Luis Echegaray Andueza



Egiaztatzen dut / Doy fe,

